

**EUSKAL MEZA, 2021 MARTXOAK 21 / MARCH 21, 2021**  
**GARIZUMA V IGANDEA / V SUNDAY OF LENT (B)**  
**MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS**

**HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG**

<p><b>Damu dut, Jauna, bihotz guztitik (156)</b>  <b>zu nahigabetu izana.</b>  <b>Ez, ez gehiago, bekaturikan,</b>  <b>nire Jaungoiko laztana.</b></p> <p>Minaren minez, Jesus maitea,  daukat bihotza leherturik,  ikusirikan nire bizitza  dana pekatuz beterik.</p> <p>Zure oinetan orain naukazu  begi-bihotzak urtutzen;  barru-barruko negar-saminez  barkazinoa eskatzen.</p>	<p><b>I am sorry, Lord, from all my heart,</b>  <b>Having offended you.</b>  <b>I want no more to sin,</b>  <b>My loving Lord.</b></p> <p>With pain of pain loving Jesus  My heart is breaking apart;  As I look at my life,  All full of sin.</p> <p>You have me at your feet,  As my eyes and heart melt.  Weeping from the depths of my heart  Asking for forgiveness.</p>
--	---

**HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES**

<p>† <b>Aitaren, eta +Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean.</b>  ⊙ Amen.  <b>AGURRA</b>  † <b>Jaungoiko gure Aitaren, eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.</b>  ⊙ Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesukristo gure Jaunaren Aita.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit.  ⊙ <b>Amen.</b>  <b>Greeting</b>  † The grace of our Lord Jesus Christ, and the love of God, and the communion of the Holy Spirit be with you all.  ⊙ <b>And with your spirit.</b></p>
---	--

**DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE**

<p>† <b>Senide maiteok, aitortzen ditugun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitzen.</b></p> <p>† <b>Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.</b>  ⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† <b>Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.</b>  ⊙ Kristo, erruki.</p> <p>† <b>Jesus Jauna, gure alde otoiitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna.</b>  ⊙ Erruki, Jauna.</p>	<p>† Brothers and sisters let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> <p>† You raise the dead to life in the Spirit:  Lord, have mercy.  ⊙ <b>Lord, have mercy.</b></p> <p>† You bring pardon and peace to the sinner:  Christ, have mercy.  ⊙ <b>Christ, have mercy.</b></p> <p>† You bring light to those in darkness:  Lord, have mercy.  ⊙ <b>Lord, have mercy.</b></p>
--	--

† Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

☉ Amen.

† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life.

☉ Amen.

## MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

† Egin dezagun otoitz.

Jainko gure Jauna, zure Semeak mundua hain maite zuelako, eta mundua salbatzeko, heriotzaraino eskaini zuen bere burua; egizu, guk ere horrelako maitasuna izan dezagula beti. Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Espiritu Santuarekin batean, Jainko eta Errege bizi bait da gizaldi ta gizaldietan.

☉ Amen.

† Let us Pray.

By your help, we beseech you, Lord our God, may we walk eagerly in that same charity with which, out of love for the world, your Son handed himself over to death.

Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, God, for ever and ever.

☉ Amen.

## HITZAREN LITURGIA-Liturgy of the Word

### Lehenengo Irakurgaia-First Reading

#### Jeremias Profetaren Liburua/ Jer 31:31-34

#### Jeremias Profetaren Liburutik

31 Jaunak dio: «Begira, badator Israel herriarekin eta Juda herriarekin itun berria egingo dudan garaia. 32 Itun hau ez da izango, Egiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean, beraien arbasoekin egin nuena bezalako. Haiek bai, hautsi egin zuten nire ituna, baina nik mantendu. Hala diot nik, Jaunak. 33 Hona hemen etorkizunean Israelekin egingo dudan ituna: Barruan ezarriko diet neure legea, bihotzean idatziko; ni beraien Jainko izango naiz eta haiek nire herri. Hala diot nik, Jaunak. 34 Ez dute elkarri irakatsi beharrik izango, “Ezagutu Jauna” esanez, guzti-guztiek, txiki nahiz handi, ezagutuko bainaute. Barkatu egiten baitiet beren gaiztakeria, beraien bekatua ez dut gehiago gogoratuko. Nik, Jaunak, esana».

☐ Jaunak esana!

☉ Eskerrak zuri Jauna!

#### From the Prophet Jeremiah

The days are coming, says the LORD, when I will make a new covenant with the house of Israel and the house of Judah. It will not be like the covenant I made with their fathers the day I took them by the hand to lead them forth from the land of Egypt; for they broke my covenant, and I had to show myself their master, says the LORD. But this is the covenant that I will make with the house of Israel after those days, says the LORD. I will place my law within them and write it upon their hearts; I will be their God, and they shall be my people. No longer will they have need to teach their friends and relatives how to know the LORD. All, from least to greatest, shall know me, says the LORD, for I will forgive their evildoing and remember their sin no more.

☐ The Word of the Lord!

☉ Thanks be to God!

## ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 51:3-4,12-13,14-15

<p><b>R. Ene Jainko, sortu bihotz garbia niregan.</b></p> <p>Erruki nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz, suntsitu nire hobena, zeure neurrigabeko gupidaz. Garbi nazazu oso-osorik neure errutik, garbitu neure bekatutik. <b>R.</b></p> <p>Ene Jainko, sortu bihotz garbia niregan, espiritu berri sendoa nire baitan. Ez nazazu bota zeure aurretik, ez utzi ni zeure espiritu santurik gabe. <b>R.</b></p> <p>Poz nazazu berriro zeure salbamenaz, sendotu zeure espiritu handi-zabalaz. Zure bideak erakutsiko dizkiet gaiztoei, eta zuregana bihurtuko dira bekatariak. <b>R.</b></p>	<p><b>R. Create a clean heart in me, O God.</b></p> <p>Have mercy on me, O God, in your goodness; in the greatness of your compassion wipe out my offense. Thoroughly wash me from my guilt and of my sin cleanse me. <b>R.</b></p> <p>A clean heart create for me, O God, and a steadfast spirit renew within me. Cast me not out from your presence, and your Holy Spirit take not from me. <b>R.</b></p> <p>Give me back the joy of your salvation, and a willing spirit sustain in me. I will teach transgressors your ways, and sinners shall return to you. <b>R.</b></p>
--	---

### Bigarren Irakurgaia-Second Reading Hebrearren Eskutitza/Heb 5:7-9

<p><b>Hebrearren Eskutitzetik</b></p> <p>7 Kristok, mundu honetan bizi zelarik, deiadar handiz eta negar-malkoz egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari eta, esaneko izan zitzaiolako, Jainkoak aditu egin zion. 8 Eta, Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; 9 horrela, bete-beteko izatera iritsi zelarik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen berari obeditzen dioten guztientzat.</p> <p><input type="checkbox"/> <b>Jaunak esana!</b> <input checked="" type="checkbox"/> Eskerrak zuri Jauna!</p>	<p><b>From the Letter of Saint to the Hebrews</b></p> <p>In the days when Christ Jesus was in the flesh, he offered prayers and supplications with loud cries and tears to the one who was able to save him from death, and he was heard because of his reverence. Son though he was, he learned obedience from what he suffered; and when he was made perfect, he became the source of eternal salvation for all who obey him.</p> <p><input type="checkbox"/> <b>The Word of the Lord!</b> <input checked="" type="checkbox"/> Thanks be to God!</p>
---	--

### EBANJELIO AURREKO GORESPENA-GOSPEL ACCLAMATION

<p><b>Aintza Zuri Jesus Jauna, betiko aintzaren Erregea!</b> Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat, dio Jaunak, eta ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. <b>Aintza Zuri Jesus Jauna, betiko aintzaren Erregea!</b></p>	<p><b>Praise to you Lord Jesus Christ, King of endless glory!</b> Whoever serves me must follow me, says the Lord; and where I am, there also will my servant be. <b>Praise to you Lord Jesus Christ, King of endless glory!</b></p>
--	--

## EBANJELIOA-GOSPEL

<p>† <b>Jauna zuekin.</b> ⊙ Eta zure espirituarekin. † <b>Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik</b> ⊙ Aintza Zuri, Jauna. † <b>Jaunak esana.</b> ⊙ Eskerrak Zuri, Jauna</p>	<p>† The Lord be with you. ⊙ <b>And with your spirit.</b> † A Reading from the Holy Gospel according to <b>N.</b> ⊙ <b>Glory to you, O Lord.</b> † The Gospel of the Lord. ⊙ <b>Praise to you, Lord Jesus Christ.</b></p>
---	---

### Ebanjelioa San Joanen Liburutik/ Jn 12:20-33

<p><b>20</b> Jaietan Jainkoari kultu ematera joan zirenen artean baziren greziar batzuk. <b>21</b> Hauek Galileako Betsaidako Felipegana hurbildu eta eskabide hau egin zioten: «Jauna, Jesus ikusi nahi genuke». <b>22</b> Felipe Andresi esatera joan zen, eta biek, Andresek eta Felipek, Jesusi jakinarazi zioten. <b>23</b> Jesusek erantzun zien: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. <b>24</b> Benebenetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. <b>25</b> Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. <b>26</b> Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du. <b>27</b> «Larri dut orain neure barrua. Baina zer esan? Larrialdi honetatik ateratzeko eskatuko al diot Aitari? Ez horixe, honetarakoxe etorri bainaiz! <b>28</b> Aita, azaldu zeure aintza!» Ahots bat entzun zen orduan zerutik: «Azaldu dut, eta berriro ere azalduko dut». <b>29</b> Han zeudenetako batzuek, ahotsa entzunik, trumoia izan zela zioten; beste batzuek, ordea, aingeru batek hitz egin ziola. <b>30</b> Jesusek adierazi zuen: «Ahots horrek ez du niretzat hitz egin, zuentzat baizik. <b>31</b> Oraintxe da mundu honen epaiketa; oraintxe galduko du bere boterea mundu honetako buruzagiak. <b>32</b> Eta nik, lurretik jasoko nautenean, neuregana erakarriko ditut denak». <b>33</b> Hitz hauen bidez, nolako heriotzaz hilko zen adierazi zuen.</p> <p>□ <b>Jaunak esana!</b> ⊙ Eskerrak Zuri, Jauna!</p>	<p>Some Greeks who had come to worship at the Passover Feast came to Philip, who was from Bethsaida in Galilee, and asked him, “Sir, we would like to see Jesus.” Philip went and told Andrew; then Andrew and Philip went and told Jesus. Jesus answered them, “The hour has come for the Son of Man to be glorified. Amen, amen, I say to you, unless a grain of wheat falls to the ground and dies, it remains just a grain of wheat; but if it dies, it produces much fruit. Whoever loves his life loses it, and whoever hates his life in this world will preserve it for eternal life. Whoever serves me must follow me, and where I am, there also will my servant be. The Father will honor whoever serves me. “I am troubled now. Yet what should I say? ‘Father, save me from this hour’? But it was for this purpose that I came to this hour. Father, glorify your name.” Then a voice came from heaven, “I have glorified it and will glorify it again.” The crowd there heard it and said it was thunder; but others said, “An angel has spoken to him.” Jesus answered and said, “This voice did not come for my sake but for yours. Now is the time of judgment on this world; now the ruler of this world will be driven out. And when I am lifted up from the earth, I will draw everyone to myself.” He said this indicating the kind of death he would die.</p> <p>□ <b>The Word of the Lord!</b> ⊙ Praise to you, Lord Jesus Christ.</p>
--	--

## HOMILIA-HOMILY

### SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

#### APOSTOLUEN AITORMENA

† Sinesten dut Jaungoiko Aita ahalguztidun,

☉ Sinisten dut, sinisten dut!

†☉ zeru-lurren egilea. Sinesten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

☉ Sinisten dut, sinisten dut!

Sinesten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza. ☉ Amen.

☉ Sinisten dut, sinisten dut!

#### APOSTLES' CREED

† I believe in God, the Father almighty,

†☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead. I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.

☉ Amen.

### JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: as we celebrate the Fifth Sunday of Lent, and inspired by the Holy Spirit, let us place our needs before God our Father, rejoicing, because Christ has triumphed over death and entered into his glory.

1. For our vulnerable populations: God, protect our elderly and those suffering from chronic diseases. Provide for the poor, especially the uninsured. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
2. For our local, state, and federal governments: God, help our elected officials as they allocate the necessary resources for combatting this pandemic. Help them to provide more tests and vaccinations. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
3. For our scientific community, leading the task to understanding the nature of the diseases and communicate its gravity: God, give them knowledge, wisdom, and a persuasive voice. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
4. For the homeless, unable to practice the protocols of social distancing in the shelter system: Protect them from disease and provide isolation shelters in every city. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
5. For families with young children at home for the foreseeable future: God, help mothers and fathers to partner together creatively for the care and flourishing of their children. For single mothers and fathers, grow their networks of support. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

6. For frontline health care workers, we thank you for their vocational call to serve us, and that vaccinations can be administered in an expeditive and just manner and are available for all. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

7. For people suffering discrimination for the color of the skin, race, language, gender, or gender orientation. That they all may be treated as children of God who wants all to be saved.

+ Lord God of justice and mercy, hear our prayers. Grant our beloved dead the reward of their labors and to us your consolation in our loss. We ask this through Christ our Lord.

**R/.** Amen.

## **EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY**

### **ESKAINZA ABESTIA/OFFERTORY SONG**

<p><b>Zu zera gure poza, Gurutz salbatzailea! (152)</b></p> <p>Hor Jaunaren ikurrina, gurutzea dirdaidun; bizia denak hor hilez, bizitza eman zigun.</p> <p>Zuhaitz gaineratik zu, Kristo, zu denen Erregea. Zu bizi, poztu, itxaropen, Kristo salbatzailea.</p>	<p><b>You are our joy, O saving Cross!</b></p> <p>See there the Lord's flag, shining Cross. Life, by dying on there, brought us life.</p> <p>Over that tree you, Christ, King of all, You are Life, Joy, Hope, Savior Christ!</p>
--	---

<p>† <b>Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.</b></p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† <b>Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.</b></p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† <b>Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</b></p> <p>☉ Jainkoa gorestekoa eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.</p> <p>☉ <b>Blessed be God for ever.</b></p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.</p> <p>☉ <b>Blessed be God for ever.</b></p> <p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p> <p>☉ <b>May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</b></p>
---	---

### **OPARIGAIEN GAINEN OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS**

<p>† Entzun gaitzazu Jainko ahalguztiduna; eta egizu, opari honek garbi gaitzala kristau sinesmenez argitu gaituzunok.</p>	<p>† Hear us, almighty God, and, having instilled in your servants the teachings of the Christian faith, graciously purify them by the working of this sacrifice.</p>
--	---

Jesukristo gure Jaunaren bitartez. ⊙ Amen.	Through Christ our Lord. ⊙ Amen.
---	-------------------------------------

## EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† <b>Jauna zuekin</b> ⊙ Eta zure espirituarekin. † <b>Gora bihotzak.</b> ⊙ Jaunagan dauzkagu. † <b>Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.</b> ⊙ Egoki da eta zuzen.</p> <p>† Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Zure fededunak, arimak garbiturik, zuri esker, pozez doaz urte oro pazko misterioetara. Gehiago otoitz eginez eta elkar gehiago maitatuz, bizi berria ematen duten sakramentuak harturik, Jainko semeen grazia betera heldu daitezten. Horregatik, aingeru eta goi-aingeruekin, eta zeruko talde guzietan etengabe goratarre hau abesten dizugu:</p> <p>⊙ <b>Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!</b></p>	<p>† The Lord be with you. ⊙ <b>And with your spirit.</b> † Lift up your hearts. ⊙ <b>We lift them up to the Lord.</b> † Let us give thanks to the Lord our God. ⊙ <b>It is right and just.</b></p> <p>† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord. For by your gracious gift each year your faithful await the sacred paschal feasts with the joy of minds made pure, so that, more eagerly intent on prayer, and on the works of charity and participating in the mysteries by which they have been reborn, they may be led to the fullness of grace. that you bestow on your sons and daughters. And so, with the company of Angels and Saints, we sing the hymn of your praise, as without end we acclaim:</p> <p>⊙ <b>Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.</b></p>
---	---

## EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

<p>† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezten.</p> <p>† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:</p> <p style="text-align: center;"><b>HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK HONTATIK: HAU NIRE GORPUTZA DA- TA, ZUENTZAT EMANGO DENA</b></p>	<p>† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body † and Blood of our Lord, Jesus Christ. † At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:</p> <p style="text-align: center;"><b>TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT, FOR THIS IS MY BODY, WHICH WILL BE GIVEN UP FOR YOU</b></p>
--	---

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK  
HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN  
KALIZA DA-TA, ITUN BERRI ETA  
BETIKOAREN ODOLA, ZUENTZAT ETA  
GUZTIENTZAT BEKATUAK  
BARKATZEKO ISURIKO DENA. EGIZUE  
HAU NIRE OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Ogi ardo hauek hartzean, zure heriotza dugu aitortzen, Zu, Jauna, etorri artean!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratuz, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

=====

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

=====

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean gorets zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK  
FROM IT, FOR THIS IS THE CHALICE OF  
MY BLOOD, THE BLOOD OF THE NEW AND  
ETERNAL COVENANT, WHICH WILL BE  
POURED OUT FOR YOU AND FOR MANY  
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.  
DO THIS IN MEMORY OF ME**

† **The mystery of faith.**

☉ We proclaim your death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

=====

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

=====

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, Joseph her blessed spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.



† Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan

☉ Amen.

† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.

☉ Amen.

## JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

† Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:

†☉ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurlean ere.

Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.

†Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaguzu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitezen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela

☉Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.

† At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:

†☉ Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.

Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation but deliver us from evil.

† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.

☉For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.

## PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

†Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: "Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen." Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiuzu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

☉ Amen.

† Jaunaren bakea beti zuekin.

☉Eta zure espirituarekin.

† Emaiozue bakea elkarri.

☉ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.

Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.

Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaguzu bakea.

† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.

☉ Amen.

† The peace of the Lord be with you always.

☉ And with your spirit.

† Let us offer each other the sign of peace.

☉ Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.

Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.

Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.

† **Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!**

☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.

† Kristoren Gorputza.

☉ **Amen.**

† **Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.**

☉ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.

† The body of Christ.

☉ **Amen.**

## **JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION HYMN**

### **Jesus maitea zan**

Jesus maitea zan azken Afarian  
bera eman nahirik ardao ta ogian.  
Guretzat zelarik hiltzeko aurrean  
maitasunak zeukan bihotza menpean.

**Gurtu zagun beti Jesus Jainko Jauna,  
sakramentu hontan gurekin dagona.**

Apostoluei minez esan die:  
«Ni gaur saldua naiz, bihar hilko naute.  
Aitarenganako denpora zait bete,  
hona orain zenbat zaituztedan maite.»

Ogia harturik mintzo da Jainkoa:  
«Hau da nire Gorputz, zuek jatekoa».  
Orobat harturik ontzian ardoa:  
«Hau da nire Odol isuritzekoa»

### **JESUS WAS LOVING**

During Last Super Jesus loved us,  
He offered himself in bread and wine,  
He gave himself totally for us to death  
Cause love had his heart prisoner.

**(REF) Let us always adore Christ the  
Lord, who is with us, in this sacrament.**

With pain he told his disciples:  
“today I will be sold, tomorrow will die.  
My time to the Father is accomplished,  
Look now how much I love you.”

Taking bread said the Lord,  
“This is my Body, for you to eat.  
Same taking the chalice with wine:  
This is my blood, shed for you.”

## **JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION**

+ Jainko ahalguztiduna, iguzu, orain Kristoren gorputz-odolarekin bat egin dugunez gero, beti Haren gorputzeko atal izan gaitezela. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

**R/. Amen.**

+ We pray, almighty God, that we may always be counted among the members of Christ, in whose Body and Blood we have communion. Who lives and reigns for ever and ever.

**R/. Amen.**

## **BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING**

† **Jauna zuekin.**

☉ Eta zure espirituarekin.

† **Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak:  
Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak.**

☉ **Amen.**

† The Lord be with you.

☉ **And with your spirit.**

† May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit.

☉ **Amen.**

† **Zoazte Jaunaren bakean. Aleluia, Aleluia**  
☉ Eskerrak Jainkoari. Aleluia, Aleluia.

† **Go forth, the Mass is ended. Alleluia, Alleluia.**  
☉ **Thanks be to God. Alleluia, Alleluia.**

### **AZKEN ABESTIA-FINAL SONG**

#### **Ama Maite Maria**

**Ama maite, Maria, egiguzu lagun,  
Zure bitartez Jesus ikusi dezagun (Bi).**

Aingeruzko lirio, guziz maitatua  
Usain gozozko lore, Zerutik jeitxia,  
Gorde nazazu Ama, Guztiz maitatua,  
Ez dezadan zikindu, birtute garbia."

#### **Loving Mother Mary**

**Loving Mother, Mary, come to help us,  
That through you we may see Jesus (Bis).**

Angelical lily, all loving  
Fragrant flower descended from heaven.  
Keep me my loving Mother,  
That I may not stain the chaste virtue.



**Egun on bat opa dizuet,  
I wish you a wonderful day!**

**JESUSA IRAOLA AIZARNA 1929-2021**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**JOSE DOMINGO URDAPILLETA LABAKA 1920-2020**



***Goian Begol/May He Rest in Peace***

**MARY JEAN PARIS 1924 (ARMENDARITZ)-2021**



***Goian Begol/May She Rest in Peace***

**GARRETT M. BUMGARNER ARANA 2003-2021**



Anita and Barry Bumgarner are in the Basque Choir and she is a cousin of Toni Bicandi.

***Goian Begol/May He Rest in Peace***





## GARIZUMAKO BOSGARREN IGANDEA B

*(Batasun berria)*

**Jeremi profetaren liburutik 31, 31-34**

**31** Hau dio Jaunak: huna heldu egunak, Izrael etxearekin eta Juda etxearekin Batasun berria eginen baitut. **32** Ez heien arbasoekin egin nuen Batasuna bezalakoa, Egiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean: nere Batasuna, heiek hautsi zuten, ni heien nagusia izanik ere. **33** Bainan huna Izrael etxearekin eginen dutan Batasuna, egun horien ondotik, dio Jaunak. Nere Legea barne barnean ezarriko diotet, bihotzean idatziko. Ni heien Jainkoa izanen naiz, eta heiek nere herria izanen dira. **34** Ez dute elkarri irakaste beharrik izanen, elkarri diotela: “ Ezagutazu Jauna!” Denek, ttipi ala handi, ezagutuko binaute, dio Jaunak. Barkatuko diozkatet beren hobenak, eta heien bekatuak ez dut gehiago gogoan izanen.

**Jaunak errana!**

**Eskerrak Zuri Jauna.**

**Salmoa 51 (50)**

**Leloa : Bihotz garbia ezar ni baitan, Zure argia heda dezadan!**

Urrikal zaite nitaz, Jauna,  
Hain duzu eta neurrigabeko bihotz ona.  
Nere hobena ken errotik,  
Garbi nezazu, garbi osoki bekatutik.

Bihotz garbia ezar nitan,  
Eta funtsezko xede azkarrak har ditzadan.  
Zure begitik, ez ni haiza,  
Ez, izpiritu saindua kenduz, huts bihotza.

Pitz berriz nitan zure boza;  
Zerurateko gogo zabalak bete neza.  
Gaixtoak ditut argituko,  
Bekatoreak zu ganat dire itzuliko.

**Bigarren irakurgaia**

*(Kristoren obedientzia, salbabide)*

**Hebrearri epistolatik 5, 7-9**

Kristo Jaunak, **7** bere giza biziko egunetan deiadar handiz eta nigarrez egin zion otoitz eta galde heriotzetik salba zezakeen Jainkoari; eta bere obedientziarengatik entzuna izan zen. **8** Semea

izanik ere, Pasioneko oinazeen bidez ikasi zuen obeditzen. **9** Horrela, bere beterat heldu-eta, betiko salbamenduaren iturri bilakatu da obeditzen dioten guzientzat.

**Jaunak errana!**  
**Eskerrak Zuri Jauna.**

**Ebanjelioa**

**Jesu Kristo guri mintza, argi gure bihotza!**  
Gizonaren Semea, gurutzean altxatua,  
Zure bitartez daukate denek bizia.

**Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 12, 20-33**

**20** Bazkokari Jainkoaren adoratzera Jerusalemerat igan zirenen artean baziren Greziar batzu.  
**21** Galilea Betzaidako Filiperen ganat hurbildu ziren, eta galde hau egin zioten: “Jauna, Jesus ikusi nahi ginuke.” **22** Filipe Andrerri erraitera joan zen, eta biek Jesusi erran zioten. **23** Orduan Jesusek ihardetsi zioten: “Etorria da Gizonaren Semearen aintza agertuko den ordua. **24** Egiaz egiaz diozuet: ogi-bihia lurrerat erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina hiltzen bada, fruitu ainitz emaiten du. **25** Bere bizia maite duenak galduko du; baina mundu huntan bere biziari atxikia ez denak betiko bizirako begiratuko du. **26** Nere zerbitzaria izan nahi duena jarraik bekit; eta ni non naizen, han izanen da nere zerbitzaria ere. Nere zerbitzari dena, nere Aitak ohoratuko du. **27** Durduzatu dut orai barnea. Eta zer erran? Aita, atera nezazu oren huntarik? Baina ez! Hain zuzen, oren huntarako etorria naiz! **28** Aita, ager zazu zure izenaren aintza!” Orduan mintzo bat zerutik etorri zen : “ Aintza agertu dut eta berriz ere agertuko.”  
**29** Han zagon jendeak, mintzoa entzunik, ihurtzuria zela zion; beste batzuek, berriz, zioten: “Aingeru bat mintzatu zaio.” **30** Baina Jesusek ihardetsi zioten: “ Mintzo hori ez zen neretzat, baina zuentzat. **31** Orai jujatua izanen da mundu hau: orai kanporat botatua mundu hunen buruzagia; **32** eta nik, lurretik altxatuko nautenean, denak nereganat erakarriko ditut.” **33** Hitz hauen bidez, nolako heriotzez hilen zen adiarazten zuen.

**Jaunak errana!**  
**Eskerrak Zuri Jauna.**